

LANERAKO FITXA: **ZIKINTZAILE MISTERIOTSUAREN KASUA**

Jarduera honekin, zera landuko dugu

Arazoen konponbideak bilatu behar ditugula.

Gure ekintzek ondorioak dituztela.

Gure jarduerak eragina dutela inguruan eta naturan.

Lankidetzaren eta erantzukizuna oso garrantzitsuak direla.

GJH: **13.a** eta **15.a**, garbitasunarekin eta ingurumena zaintzearekin duen loturagatik.

[Ezagutu garapen jasangarrirako helburuak \(GJH\).](#)

Iraupena

Saio bat.

Beharko dugun materiala

Zikintzaile misteriotsuaren kasua ipuina edo bideoa.

Zikloak 1, 2, 3

Aurretiazko oharra

Benetako superheroiek gaitasun batzuk izan behar dituzte jendeari lagundu eta arazoak konpondu ahal izateko. Adi egon behar dute beti, inguruabarrak aztertzen, informazioa biltzen, historia ezagutzen...

Gaitasun horiek lantzeko moduetako bat istorio hauetan gertatzen dena aztertzea da. Besteei laguntzeko orduan, neska-mutilei baliagarria izango zaie bertan jasotako informazioa.

Ipuin honen bidez, gauza garrantzitsu batzuk ikasiko dituzte:

- Erantzukizuna oso garrantzitsua dela. Gizakiok gure ekintzen erantzule gara, eta kontuan izan behar ditugu gure ekintzek eragin ditzaketen ondorioak. Arduratsuak izateak konpromisoak hartzea eskatzen digu, bai pertsonetikiko, bai ingurumenarekiko, gure ekintza guztiek dutelako eragina, era batera edo bestera.
- Elkarlanean aritzea eta elkarri laguntzea oso garrantzitsua dela.

Ipuina irakurtzean edo bideoa ikustean, eta parkea zikintzen ari den supermaltzurra zein den zehaztu baino lehen, eskatu ikasleei ikerketan laguntzeko: gelditu irakurketa edo bideoa (5:30 minutuan), eta galdetu haien ustez nor den supermaltzurra eta zergatik.

Garapena

Irakurri ipuina edo ikusi bideoa.

Arretaren proba (aukerakoa da, ikasleen adinaren arabera egiteko)

Ipuina irakurri edo bideoa ikusi ondoren, eta betiere ikasleen adinaren arabera, galdera batzuk egin ditzakezue, edukia ondo ulertu dutela ziurtatzeko.

Esaldi hauek egia edo gezurra diren esan beharko dute:

- Super Peporen lehenengo urtea da Akademian.
- Pepori asko gustatzen zaizkio detektibe-liburuak.
- Parkea txukun eta garbi dago.
- Hada Ry Keza supermaltzurra aritu da parkea zikintzen.
- Super Pepok lagundu egin nahi dio Petrolexi.

- Parkean dagoen zaborra kolorez margotzea erabaki dute.
- Benetako superheroiak elkarlanean aritzen dira askotan.

Hausnar dezagun

Hausnartu ipuinaren edukiaren inguruan, honelako galderak eginez:

- Peporen zenbat lagun agertzen dira ipuinean? Gogoratzen al dituzue haien izenak?
- Zein arazo gertatu da istorio honetan? Zergatik sortu da arazoa?
- Parkea zikin-zikina dagoela ikustean, zer egin du Pepok lehenik eta behin?
- Zer esan dio Superheroien Akademiako irakasleak Pepori?
- Zer konponbide bururatu zaie Pepori eta bere lagunei? Konponbide egokia iruditzen al zaizue?

Esan lurrera hondakin botatzen dugun bakoitzean, zuhaitz bati hostoak kentzen dizkiogun bakoitzean, ura alferrik gastatzen dugun bakoitzean eta abar Petrolexi laguntzen ari garela.

- Inoiz lagundu al diozue Petrolexi? Pentsa ezazue bakoitzak bere baitan. Nahi duenak ozen erantzun dezala.
- Zer egin dezakegu Petrolexi gehiago ez laguntzeko?
- Erronkei aurre egiteko, ona da elkarlanean aritzea. Aritu al zarete inoiz elkarlanean? Eman adibide batzuk.

Ipuin honek irakaspen garrantzitsu batzuk jasotzen ditu. Aipatu zuen arreta piztu duten batzuk.

ZIKINTZAILE MISTERIOTSUAREN KASUA

—Gaurko eguna oso garrantzitsua da, neska-mutilak. Lan gogorra egin beharko duzue. Azken ikasturtea duzue Jotamgo Akademian, eta, bukatzen duzuenean, ikasitako guztia zuen ingurunean aplikatu beharko duzue. Noizean behin, akatsak egingo dituzue, baina gogoan izan benetako superheroiak ez direla inoiz ere okerrik egiten ez dutenak, baizik eta, zerbait gaizki egiten dutenean, nahastu egin direla aitortzen dutenak eta konponbide bat bilatzen dutenak.

Akademiako zuzendariak bere hitzaldia bukatu zuenean, dardarka hasi nintzen. Oso urduri nengoen! Iruditzen zitzaidan ez nintzela aulkitik altxatzeko gauza izango! Superheroien Akademiako azken ikasturtea! A zer nolako erantzukizuna! Pixka bat kezkatuta nengoen... Nola jakin nor dagoen laguntza beharreen? Eta nola lagundu? Baina, urte hartan, oso gauza garrantzitsu bat ikasi nuen: benetako superheroiak ez dira inoiz bakarka aritzen.

Duela zenbait aste gertatu zitzaidana kontatuko dizuet: Niri ikaragarri gustatzen zaizkit detektibe-liburuak: aztarnak biltzen eta aztertzen aritzen dira, pentsatu eta pentsatu, zer gertatu zen jakiteko eta erruduna nor izan den asmatzeko. Nire ustez, detektibeen lana gurearen oso antzekoa da: superheroiak ere adi-adi ibiltzen gara beti, ikusten dugun guztia aztertzen, eta norbaitek gure laguntza behar duenean, berehala laguntzen diogu.

Behin batean, nire lagunak eta nik kasu bat ikertu behar izan genuen. Ez zen batere erraza, baina, guztion artean, ezin hobeto argitu genuen gertatutakoa, talde bikaina osatzen dugu-eta!

Aste batzuk lehenago, parkean detektibe-liburu bat irakurtzen ari nintzela, emakume bat oihuka hasi zen:
—Ze zikina dagoen parke hau! Nork utzi ote du horrela? Lotsagarri dago! Hitz horiek entzutean, nire detektibe-burmuina martxan jarri zen. Parke zikinaren kasua ikertu behar nuen! Liburua itxi, aztarnen koaderno atera, eta ikertzen hasi nintzen.

Egoera nik uste baino askoz okerragoa zen. Lehenik eta behin, ikusi nuen lurrean paper eta plastiko pila bat zeudela botata, eta zakarrontziak zaborrez inguratuta zeudela.
—Baina zertan ibili dira hemen? *Saskizaborrean* jokutzen, ala? Txokolatzeko palmondo baten puska handi bat ere ikusi nuen.
—Hara! A zer nolako gaizkileak! Zikinak izateaz gain, janaria alferrik botatzen dute! Duela gutxi izan dira hemen, oraingo ez baitago inurrik. Inurriek berehala hautematen dute janaria. Inguruan ez nuen inor ikusi. Orduan, ibaiaren aldera joatea erabaki nuen. Halako bidean, txakur-kaka pila bat ikusi nuen. Ibaira iritsi nintzenean, sekulako narraskeria aurkitu nuen. Ibaia zaborrez beteta zegoen. Latak zeuden batez ere! Eta pila gastatuak ere bai! Kezkatuta, oharrak hartzen hasi nintzen:

—Paperak eta plastikoak, txakur-kakak, janaria alferrik botata, ur kutsatua... Hau ez du edonork egin, profesional batek baizik! Akademiako apunteak behar ditut!

Etxera iritsitakoan, koaderno hartu nuen. Berehala aurkitu nuen bilatzen ari nintzena! Hirugarren gaia: supermaltzurak. Superheroien etsai nagusiak! Irakasleak, gainera, supermaltzur bakoitzaren fitxa eman zigun, bakoitzaren helburuak eta jarduteko modua zehaztuta. Dena goitik behera irakurri nuen.

Hurrengo egunean, korrika joan nintzen eskolara, lagunei dena kontatzeko asmoz. Taldean, pasahitz ezku bat geneukan, larrialdi-kasuetan elkartzeko. *Delta 5* pasahitza ikusi orduko, bagenekien lehenbailehen aztertu beharreko arazo bat geneukala eskuartean. Hortaz, aurreneko klasean, orri bat pasa nien lagunei:

«Jolas-orduan, bilera. Kodea: Delta 5».

—Zer gertatu da, Pepo? —galdetu zuen Emmak jolas-orduan—. Zergatik aktibatu duzu Delta 5 kodea?

—Oso larria al da? Kezkatuta utzi gaituzu —esan zuen Irenek.

—Bota lehenbailehen! Zer gertatu da? —galdetu zuen Iñakik.

—Supermaltzur bat gaiztakeriak egiten ari da. Gure parkea zaborrez beteta utzi du, eta ibaia kutsatuta dago. Nor den jakin beharra daukagu, eta geldiarazi egin behar dugu —esan nien.

—Superzer esan duzu? —galdetu zuen Emmak.

Supermaltzurak nor diren azaldu nien. Haien fitxak arbelean zintzilikatu nituen, telesailetan bezala:

—Supermaltzurak sei dira. Ikus dezagun bakoitzak zer egiten duen, erruduna nor den jakiteko.

Hirurak adi-adi zeuden, esandako guztia entzuten eta koadernoan oharrak jasotzen:

—Aurreneko susmagarria: Hada Ry Keza. Bere *Kpital* autoan ibiltzen da, mundu osoko aberastasunak xurgatzen eta desberdinkeria sustatzen.

—Ze gaiztoa! —esan zuen Irenek—. Egiten duena gaizki dago, baina ez dut uste parkean gertatutakoarekin zerikusia duenik.

Ados geunden Irenerekin.

—Hurrengo susmagarria: Xahubide kapitaina. Bere helburua milioika pertsona janaririk gabe uztea da. Bere xurgagailu ahaltsuari esker, ahal duen janari guztia xurgatzen du, eta zabor bihurtuta kanporatzen du.

—Agian bera da erruduna! —esan zuen Iñakik—. Lurrean janari-arrastoak zeudela esan duzu.

—Bai, egia da lurrean janari-arrastoak aurkitu nituela, baina ez gehiegi. Nire ustez, froga hobeak behar ditugu erruduna bera izan dela ondorioztatzeko. Jarrai dezagun beste supermaltzurak aztertzen.

—Hurrengoak Petrolex du izena, eta bere helburua Lurrak eskaintzen dizkigun baliabideak mugarik gabe erabil ditzakegula eta dena kutsa dezakegula pentsaraztea da.

—Dena kutsa dezakegula! —esan zuen Emmak—. Beraz, basoak, itsasoa, ibaiak... Parkeak ere bai!

Elkarri begiratu genion, begiak zabal-zabalik:

—Lortu dugu! —oihukatu zuen Iñakik—. Petrolex da gure supermaltzurra!

—Entzun: supermaltzurak ez dira inoiz bakarka aritzen; besteen laguntza behar dute gaiztakeriak egiteko—esan nien.

Bagenekien parkea Petrolexek zikindu zuela, baina ez genekien zer egin bere maltzurkeria geldiarazteko eta parkea berreskuratzeko.

—Superheroien Akademiako irakaslearengana joango naiz. Berak lagunduko digu —esan nien.

Arratsalde hartan, gure ikerketaren xehetasun guztiak kontatu nizkion irakasleari. Adi-adi entzun zuen nik esandako guztia. Eta, bukaeran, esan zidan:

—Oso ongi, Pepo. Asmatu duzue parkea zikindu duen supermaltzurra zein den. Zer egingo duzue orain?

—Zer egingo dugun? Ba horixe galdetu behar nizun nik!

—Hara, Pepo: dagoeneko azken ikasturtean zaude. Hemendik aurrera, zuk bakarrik egin beharko diezu aurre arazoei, urte hauetan ikasitakoaz baliatuz.

—Bai, badakit, baina batzuetan ez da batere erraza izaten.

Pentsakor itzuli nintzen etxera, mandarina bat jaten. Azalak botatzeko zakarrontzirik ikusten ez nuenez, zuhaitz baten ondotik igarotzean bazterrera bota nituen.

—Aizu, mutiko! —oihukatu zidan emakume batek haserre bizian—. Mandarina-azalak ez dira lurrera bota behar!

Zakarrontzirik ikusi ez nuela esan nahi nion emakumeari, eta zuhaitzaren bazterrean ez ziotela inori kalterik egingo, eta biodegradagarriak zirela, eta... Ze lotsa! A zer superheroi kaskarra naizen!

Hurrengo egunean, goizean, Iñakik *Delta 5* kodea bidali zigun. Oso kezkatuta zegoen. Jolas-ordua iritsi zenean, hauxe esan zigun:

—Atzo, Petrolexek egindakoz pentsatzen aritu nintzen, eta konturatu naiz batzuetan nik ere oker jokatzeko dudala, nire lehengusua eta ni ibaira latak botatzen ibiltzen garelako —esan zuen.

—Eta nik, batzuetan, ez ditut jasotzen nire txakurraren kakak; lurrean uzten ditut —aitortu zuen Emmak.

Nik, orduan, mandarina-azalekin gertatutakoa kontatu nien. A zer-nolako kuadrilla gurea! Baina, berehala, erantzuna aurkitu nuen.

—Badakit zer gertatu den! —esan nien—. Nahi gabe, guk lagundu diogu Petrolexi parkea zikintzen! Guri esker bete ditu bere helburuak!

—Orduan, zer egingo dugu? —galdetu zuen Iñakik.

—Denek jakin behar dute nor den Petrolex, zeinen arriskutsua den, eta nola lortzen duen indarra. Gure laguntza jasotzen ez badu, ez ditu bere helburuak lortuko —esan zuen Irenek.

Ikastetxean, gelaz gela ibili ginen parkearen egoeraren berri ematen, eta, guztion artean, informazio-kanpaina bat jarri genuen abian.

Parkean, Petrolexen irudiak jarri genituen, zer egiten zuen azaltzeko.

Gainera, larunbatean parkea denon artean garbitzeko deialdia egin genuen.

«**G operazioa**» deitu genion ekimenari. Jende askok hartu zuen parte, eta nahiko txukun utzi genuen parkea. Hala ere, Petrolex oso etsai indartsua denez, denbora gehiago beharko genuen parkea txukun-txukun uzteko.



Aurten bukatu ditut Jotango Superheroien Akademiako ikasketak. Gauza asko ikasi ditut; besteak beste, superheroien benetako etsaiak identifikatzen eta helburuak betetzen ikasi dut. Baina, batez ere, ikasi dut superheroiak ez direla inoiz bakarka aritzen. Arrakasta izateko, ezinbestekoa da elkarlanean aritzea.

Zailtasun handiko eginkizun bat badaukazu, elkar zaitetz helburu berbera daukaten beste batzuekin. Zuk uste baino gehiago izango dira! Munduan superheroi pila bat dago besteei laguntzeko prest eta mundua hobetzeko gogoz!